



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2005eko maiatzaren 9a

44. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzen duena, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztua (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruñerriko eremu ez-euskaldunaren mugak berrikus ditzan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzen duena euskararen legea aldatzera, eremu ez-euskalduneko udal guztiak eremu mistoan sar daitezen. Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nudismoa praktikatzeko oztopoak ken ditzan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Jauregiko errotuluak gaztelaniaz eta euskaraz jar ditzan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eremu mistoko seinale guztiak gaztelaniaz eta euskaraz jar ditzan. Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da familia eta lana bateragarri egiteari buruzko foru lege proiektu bat egin dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikan aldaketa batzuk egitea proposatzen da. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mendekotasunaren arloko prebentzio eta laguntzarako beste plan bat igor dezan. Aralar parlamentu-taldeak aurkeztu du (14. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Ezkaba mendiaren erabilera eta babes arautzeari buruzkoa, foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak egina (16. or.).
- Galdera, euskaraz murgiltzeko eredia duten ikastetxeetan, ez-egonkortasunak, masifikazioak eta plangintza faltak matrikulazioan eragina izan duten jakitekoa, foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak egina (17. or.).
- Galdera, Tuterako Reina Sofia Ospitaleko itxaron zerrendei buruzkoa, foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egina (17. or.).
- Galdera, Mendabian Errioxako jatorrizko deitura kalifikatuko lur-eremuko ardanegi bat paratzeari buruzkoa, foru parlamentari Miren Egaña Deskarga andreak egina (18. or.).
- Galdera, langile autonomoaren estatutuari buruzkoa, foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak egina (19. or.).
- Galdera, “ADAPNA, Adaptabilidad de Navarra” izeneko proiektuaren helburuei buruzkoa, foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak egina (19. or.).
- Galdera, TECAL 40 enpresaren bideragarritasun planari buruzkoa, foru parlamentari Elma Sáiz Delgado andreak egina (20. or.).
- Galdera, udalei turismoa sustatzeko emandako dirulaguntzei buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (21. or.).
- Galdera, “Urbasako Jauregia” delakoaren balizko eraispenari buruzkoa, foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak egina (21. or.).
- Galdera, Liburutegi Nagusiaren zerbitzua Sedena enpresari adjudikatzeari buruzkoa, foru parlamentari Miren Egaña Deskarga andreak egina (22. or.).
- Galdera, 2002ko ekainaren 5eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako deialdian azterketak gainditu zituzten Osasunbideko administrari-laguntzaileek dituzten arazoei buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (22. or.).
- Galdera, Agoizko Udalarari emandako dirulaguntzei buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (23. or.).
- Galdera, “Frantzisko Xabierkoaren arrasto unibertsala” izeneko erakusketari buruzkoa, foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egina (24. or.).
- Galdera, landetxeen sareari buruzkoa, foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egina (24. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikari lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa. Lekualdatze lehiaketa hutsik gelditu da (26. or.).

H SAILA:**Bestelako testu arau-emaileak:**

- Proposamena, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 76. artikulua aldatzekoa. Aurkeztutako zuzenketa (27. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

**Foru Lege proposamena,
Euskarari buruzko abenduaren
15eko 18/1986 Foru Legearen
5.b) artikulua aldatzen duena**

ZIOEN AZALPENEA

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1996 Foru Legeak Nafarroako hizkuntza eremuak osatzen dituzten herriak zerrendatu zituen, garai hartan legegileari egokiak iruditu zitzaizkion irizpide soziolinguistiko eta politikoen arabera.

Araudi hura onetsi eta hemeretzi urte iragan direnean, bistakoa da Iruñerrian hiri-bilbe jarraitua osatu duten gizarte eta hirigintza garapenak izan direla.

Izan ere, gaur egun bada antzeko osagai soziologiko eta soziolinguistikoak dituen "Iruñeko konurbazio" bat; osagai horien arabera, komeni da eta justifikaturik dago gaur egun indarrean dagoen 1986ko foru legeak ezarritako hizkuntza eremuen banaketa berrikustea. Adibidez, konurbazio horretan izugarri igo da haurrak ikastetxe publikoetan euskaraz eskolatzeko eskaera.

Hizkuntza eremuak egokitu eta berrikustean, "Iruñeko konurbazioa" eremu mistoan sartu behar ko litzateke, administrazioak gizartearen eskaerari erantzuteko.

Aldaketa horrek oztopoak kenduko lituzke, administrazioak eremu horretan derrigorrezko hezkuntza euskaraz egiteko dagoen eskaerari erantzun ahal izateko, zer herritan bizi den, horren araberrako diskriminazio artifical eta burokratikoak alde batera utzita.

Bestalde, 1986. urteaz geroztik eta gizarte eta hirigintza garapeneko prozesu beraren ondorioz, banaketa prozesuak izan dira Iruñerriko hainbat herritan, nagusiki Antsoain, Zizur, Galar eta Oltza Zendeetan eragina izan dutenak. Horretaz gain, izen ofizialetan ere aldaketak izan dira eta komenigarria da gaur egun eremu mistoa osatzen duten herrien zerrenda gaurkotzea.

Artikulu bakarra.

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 5. artikuluko b) letrak testu hau izanen du:

"b) Eremu mistoa, ondoko udalerriek osatua: Abartzuza, Antsoain, Agoitz, Aranguren, Artzi, Atetz, Barañain, Beriain, Berriobeiti, Berriozar, Bidaurreta, Burgi, Ziriza, Zizur, Etxarri, Etxauri, Egues, Ezkaroze, Espartza, Lizarra, Ezkabarte, Galar, Garde, Goñi, Gorza, Gesalatz, Uharte, Izaba, Itza, Itzaltzu, Jaurrieta, Txulapain, Lezaun,

Lizoain, Noain, Otsagabia, Odieta, Olaibar, Oltza, Olo, Orkoien, Orontze, Orotz-Betelu, Iruña, Gares, Erronkari, Jaitz, Sartze, Urzainki, Uztarroze, Bidan-koze, Atarrabia, Deierri, Zabaltza eta Zizur Nagusia”

Azken xedapena

Foru lege honek 2006ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruñerriko eremu ez-euskaldunaren mugak berrikus ditzan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruñerriko eremu ez-euskaldunaren mugak berrikus ditzan."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurra Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, Iruñerriko eremu ez-euskaldunaren mugak aldatzeari buruzko ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak uste du Euskarari buruzko Foru Legeak duela hama-

zortzi urte baino gehiago Nafarroan zegoen errealitate soziolinguistiko eta politikora egokitutako irizpideak erabili zituela hizkuntza eremuak osatzen dituzten Nafarroako herriak zerrendatzeko, legearen beraren aplikazioaren ondorioetarako. Zerrenda hori berrikusi behar da, Euskarari buruzko Foru Legearen laguntzaz sortu den errealitateara egokitzeko.

Hizkuntza errealitatearekin zerikusirik ez duten gertaerek, hala nola hirigintza garapenek, etengabeko hiri-bilbea osatu dute Iruñerrian, Barañain, Berriozar, Burlata, Mutiloa, Noain, Eguesibar, Elortzibar... bezalako herriekin. Herri horiek, hiri-buruarekin batera, "Iruñeko konurbazioa" osatzen dute eta antzeko osagai soziologiko eta soziolinguistikoak dituzte. Hori dela eta, bidezkoa da hizkuntza eremuen mugak berrikustea eremu zehatz horretan. Horretarako, hizkuntza egoerari eta etorkizunari buruzko txostena egin beharko da alde aurretik, baita eremu hori zehaztu eta mugatu ere.

Hori dela eta, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eremu mistoaren eta ez-euskaldunaren mugak berrikus ditzan Iruñerrian, behar diren azterlan eta txostenak egin ondoren.

Iruñean, 2005eko apirilaren 22an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzen duena euskararen legea aldatzera, eremu ez-euskalduneko udal guztiak eremu mistoan sar daitezzen.

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da euskararen legea aldatzera, eremu ez-euskalduneko udal guztiak eremu mistoan sar daitezzen".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnalek, talde horren eleduna den aldetik, eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Nafarroan euskararen erabilera arautu zuen 18/1986 Foru Legearen bidez ezarri zen hizkuntza eremuen banaketak, Foru Komunitateko herritar guztiari hizkuntza eskubide berberak aitortu behar diren, administrazioaren betebeharrak bereizten ditu eremu euskaldunetan, mistoan eta ez-euskaldunetan, herritarrek hizkuntza eskubideak baliatzeko duten aukerari dagokionez.

Parlamentu-talde honen aburuz, berez onartezina den hizkuntza eremuen banaketa horrek egoera zentzugabeak sorrarazten ditu, hala nola Iru-

ñerrian, non agerikoa den populazio multzo bera dela, herri batzuk eremu mistokoak izatea eta beste batzuk, berriz, eremu ez-euskaldunekoak.

Eremuen antolaketa orokorrak ez du logikarik eta herritar batzuk kaltetzen ditu beste batzuen aldean, Foru Komunitateko zein tokitan bizi diren. Hori eskandaluzko moduan geratzen da agerian kasu jakin batzuetan, Iruñerrikoa kasu; izan ere, aipatu foru legearen bidez ezarritako eremuen antolaketaren ondorioz, Noaingo eta Elortzibarko herritarrei ez zaie aitortzen D eremuan ikasteko eskubidea, inguruko gainerako herrietako biztanleei aitortzen zaie moduan.

Horrela, bertako toki erakundeek egoera hori tamalgarria dela adierazi eta bertako herritarrei gutxienez ere eskualdeko gainerako herritarrek dituzten hizkuntza eskubide berberak baliatzeko eskubidea aitortzea eskatu dute.

Horregatik guztiagatik, Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du foru lege proiektu baten bidez 18/1986 Foru Legea alda dezan, Iruñerriko herri guztiak (Noain eta Elortzibar barne) eremu mistoan sartzeko eta 2005-2006 ikasturtean eskubide hori aitortzeko eta irakaskuntza publikoan D ereduko hezkuntza lerroak eskain daitezzen.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du behar diren legeen aldaketak egin ditzan, legegintzaldi hau amaitu baino lehen eremu ez-euskalduna osatzen duten herri guztiak eremu mistoan sartzeko ondorio guztiarako.

Iruñean, 2005eko apirilaren 25ean

Eleduna: Begoña Errazti Esnal

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da nudismoa praktikatzeko oztupoak ken ditzan.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da nudismoa praktikatzeko oztupoak ken ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du:

Zioen azalpena

Askatasuna da oraindik ere gizakiaren ideiarik erradikalena. Diktadura-alditik sistema demokratiko batera iragateko trantsizioak ekarri zuen lege aldaketaren bidez, bizikidetasunerako oinarritzko balioetat hartu ziren eskubide berdintasuna eta arrazoi moralengatik, sinesmenengatik edo irizienengatik ez baztertzeara.

Herritar guztien eskubideen errespetua zenbateraino lortzen den, halakoa izanen da gure gizartearen osasun demokratikoa. Halatan, beti errespetatu behar dira gehiengoaren erabakiak; hala ere, gehiengoak ez dira sistema demokratiko baten erreferentzia baliagarri bakarra. Gehiengo horiek kontsekuentiak izan behar dute hartutako erabakiekin eta guztien eskubideak errespetatu behar dituzte erabakiak hartzerakoan.

Gai horri lotuta, halaxe zioen Jeffersonek 1820. urtean: "Kontuan har ezazue printzipio hau: gehiengoaren borondateak beti nagusitu behar badu ere, borondate horrek, bidezkoa izateko, arrazoizkoa izan behar du; gutxiengoak ere eskubide berberak ditu, eta eskubide horiek lege ore-

katuen bidez babestu behar dira; izan ere, eskubide horiek urratzea zapalkuntza izanen litzateke". Eta: "Ez dut ezagutzen gizartearen azken botereen gordetzailerik herria bera ez denik; eta uste badugu herria ez dagoela bere burua erabateko zuhurtziaz kontrolatzeko behar bezain ilustratua, konponbidea ez da kontrola kentzea, zuhurtzia hezkuntzaren bidez irakastea baizik (Jeffersonek W. Jarvisi, 1820. urtea).

Denok eskubidea berak izatea eta batzuen eskubideak besteenen aurrean ez gailentzea, baizik eta denok elkarrekin ahalik eta hobekien bizitzeko modua aurkitzea, denok espazio bera partekatzea eta talde handi bat izateak dakarren aniztasuna errespetatzea da, hain zuzen, zapalkuntzan erortzetik urrun mantentzen lagundu behar digun espiritua. Hori lortzeko tresna hezkuntza da; hain zuzen, herritarrak ohartaraztea besteen desberdintasunak errespetatzea dela bizikidetasun baketsu eta harmoniatsua bermatzen duena, denok elkarrekin eta desberdin.

Nudismoaren praktika gero eta onartuagoa dago gure inguruan. Espainiako estatuan eta Nafarroan oso jende gutxi praktikatzen badu ere Europan erabat errotua dago eta populazioaren ehuneko esanguratsu batek praktikatzen du.

Errenferentzia batzuen arabera, herrialde batzuetan –hala nola Europako iparraldeko herrialdeak –populazioaren % 20 inguruk praktikatzen du nudismoa eta, estatistika fidagarririk ez badago ere, Nafarroako Foru Komunitatean kopuru hori % 3ra irits liteke. Aldiz, gaur egun indarrean dagoen legeria irekienetakoa da; izan ere, legearen ikuspegitik, ordenamendu juridikoak ez du zigortzen espazio publikoetan nudismoa praktikatzea.

Baina hori ez da eragozpen erakunde publikoek, irizpide moralak oinarri hartuta, praktika horri oztupoak jartzeko, nahiz eta jokaera hori legearen aurkakoa izan nabarmen eta oinarritzko eskubideak urratu. Horri lotuta, ezin da ahaztu 1978. urteaz geroztik daukagun sistema juridikoa akonfesionala dela, eta bertan moral guztiek dutela tokia, ondano publikoetara erasotzen ez dieten bitartean.

Hori dela eta, herritarrak xenofobiaren aurka, erlijio-sinesmen guztien bizikidetasunaren alde, emakumea ez baztertzearan alde edota behartsuekiko elkartasunaren alde hezi eta kontzientziatu diren moduan, gomendagarria da erakunde publi-

koek herritarrengan nudismoaren errespetuari eta nudisten eta nudistak ez direnen arteko bizikidetasunari buruzko kontzientzia sutatzea.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Ezker Batua-Izquierda Unida de Navarra parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du onar dezan herritar guztiak eskubide eta askatasun berak dituztela eta pertso-

na guztiak balia ditzaketela, inposiziorik gabe, baldin eta legea errespetatzen bada.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du administrazio publiko eskudunen aurrean argi utz dezan legeak aintzat hartzen duela biluzik ibiltzeko eskubidea eta haiek premia ditza behar diren ekimen eta neurriak har ditzaten nudismoa praktikatzea eragozten duten erregele-menduzko oztopoak kentzeko.

Iruñean, 2005eko apirilaren 25ean

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren premiatzen da Nafarroako Jauregiko errotuluak gaztelaniaz eta euskaraz jar ditzan.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernuaren premiatzen da Nafarroako Jauregiko errotuluak gaztelaniaz eta euskaraz jar ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 193. artikuluan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Duela urtebete baino gehiago, bi errotulu jarri ziren Nafarroako Jauregiko fatxadetan, hain zuzen ere, San Inazio etorbideko 1ean eta Karlos III.a etorbideko 2an, "Gobierno de Navarra" hitzekin.

Nafarroako Gobernuaren egoitza nagusiko errotuluak Foru Komunitateko bi hizkuntza ofiziale-tako batean, hau da, soilik gaztelaniaz, jartzea, ez dator bat beste erakunde batzuen jokabidearekin. Nafarroako Parlamentuko sarrerako eta bertako bulego guztietako errotuluak ele bitan jarrita daude, gaztelaniaz eta euskaraz. Gauza bera gertatzen da Nafarroako Auzitegi Nagusiaren eta beste organo judizial batzuen egoitza den justizia jauregian, Nafarroako arartekoaren egoitzan, Comptos Ganberarenean, baita beste erakunde batzuen egoitzetan ere.

Duela gutxi, Foru Komunitateko Gobernuaren Ordezkaritzaren egoitzako errotuluak ere ele bitan jarri dituzte, eta gauza bera egin dute estatuko Administrazio Orokorreko beste bulego batzuetan, Iruñean eta beste ordezkaritza batzuetan.

Ez dirudi logikoa Nafarroako Gobernuaren egoitza nagusia, Foru Komunitateko erakunde garrantzitsuena, izatea euskararen presentzia baztertzeko duen erakunde bakarretakoa, kontuan hartuta indarrean dagoen araudiak ez duela hori eragozten.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du Nafarroako Jauregiko errotuluak gaztelaniaz eta euskaraz jar ditzan.

Iruñean, 2005eko apirilaren 26an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eremu misto-ko seinale guztiak gaztelaniaz eta euskaraz jar ditzan.

EUSKO ALKARTASUNA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak ondo-ko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da eremu mistoko seinale guztiak gaztelaniaz eta euskaraz jar ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal-ko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Begoña Errazti Esnalek, talde horren eleduna den aldetik, eta Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Nafarroan euskararen erabilera arautu zuen 18/1986 Foru Legearen bidez ezarri zen hizkuntza eremuen banaketak, Foru Komunitateko herritar guztiei hizkuntza eskubide berberak aitortu behar, administrazioaren betebeharrak bereizten ditu eremu euskaldunean, mistoan eta ez-euskaldunean, herritarrek hizkuntza eskubideak baliatzeko duten aukerari dagokionez.

Parlamentu-talde honen oniritzirik ez duen foru lege horrek xedatutakoaren arabera, Nafarroako Gobernuak euskara sustatzeko betebeharra du,

baita eremu mistoan Nafarroako Gobernuaren menpeko seinale guztiak euskaraz ere jartzekoa ere.

Hala ere, gaur egun erraz egiazta daiteke eremu mistoko errepideetako seinaleak eta beste hainbat errotulu gaztelaniaz bakarrik daudela. Halatan, bereziki larria da zenbait herriren kasua, Zizur Nagusia kasu; izan ere, bertako udalak aho batez onetsi zuen Nafarroako Gobernuari eskatzea udalerriko seinale eta errotulu guztiak ele bitan jar zitezela, baina Nafarroako Gobernuak uko egin dio eskatutakoa betetzeari.

Hala, bada, 18/1986 Foru Legean ezarrita dagoelako, eremu mistoan bizi diren herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzea esan nahi duelako, Nafarroako Gobernuak gure hizkuntzarekiko duen begirunea duintzeko, hizkuntza parametrok horren beharra adierazten dutelako eta euskara harrotzen gaituen kultur osagaia delako eta denei erakutsi behar zaien Foru Komunitatearen nortasunaren ezaugarri delako, Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeak honako erabaki proposamena aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eremu mistoan dauden Foru Administrazioaren menpeko bideetako seinale guztiak, argibide-panelak eta abar besterik gabe euskaraz eta gaztelaniaz jar ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean gaztelaniaz soilik dauden errotulu guztiak aldatu eta gaztelaniaz eta euskaraz jar ditzan behin betikoz.

Iruñean, 2005eko apirilaren 27an

Eleduna: Begoña Errazti Esnal

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da familia eta lana bateragarri egiteari buruzko foru lege proiektu bat egin dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da familia eta lana bateragarri egiteari buruzko foru lege proiektu bat egin dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, familia eta lana bateragarri egiteari buruzko ondoko mozioa aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Emakumeak lan merkatuan sartzeak ez du ekarri etxeko lanak egiteari uztea.

Oztopo asko gainditu behar dira familia eta lana bateragarriak izatera heltzeko. Horietako bat da haurrak izatearen eta lan merkatuaren eskakizunen bateraezintasuna; gizarte arazo bat da, baina legegintzako neurri egokien bidez arindu daiteke. Hala ere, neurri horiek ez dira soilik emakumeentzat izan behar.

Sozialisten parlamentu-taldearentzat, lana eta familia bateragarri egitea berariazko helburu bat da berez eta, horrenbestez, berariaz arautu behar da.

Beharrezkoa Foru Gobernuak lana eta familia bateragarri egiteko benetako politika, herritar guz-

tien bizi kalitate hobea babestu eta bermatuko duena, susta eta babes dezan.

Beharrezkoa da gizonek eta emakumeek aukeren berdintasun erreala izatea. Lana eta familia bateragarri egiteko politika arlo horretan dau den oztopo eta eragozpenak deuseztatzeko funtsezko tresnetako bat da.

Lana eta familia bateragarri egiteko politikak zainduko du amatasuna, aitatasuna edo familiakoak zaintzea oztopo izan ez daitezen lana lortzerakoan edo egiterakoan, baita horiek guztiak erabat gozatu edo gauzatu ahal izatea ere.

Halaber, lana eta familia bateragarri egiteko politikak zainduko du beharrezkoak diren tresnak aplikatzen direla, berdintasunaren balioa eta bi sexuetako pertsonen arlo horietan modu orekatuan parte hartzea bultzatzen dituen hezkuntza lortze aldera.

Lana eta familia bateragarri egitea gizarte osoa ukitzen duen gaia da: emakume eta gizon guztiak, biztalaria aktiboa eta haien menpe bizi direnak, enpresak eta langileak, besteren konturakoak nahiz norbere konturakoak, sektore eta lurralde desberdinetako botere publikoak; eta behar duen garrantzia eman behar zaio.

Nafarroako Gobernuak hausnarketa sakona egin behar du lana eta familia bateragarri egiteko politikari buruz. Beharrezkoa da izaera desberdineko neurri multzo bat eskaintzea, lana eta familia bateragarri egitea sustatzeko, babesteko, arautzeko, finantzatzeko eta ebaluatzeko, berez azter daitekeen parametrotzat hartuta.

Horregatik guztiagatik, Sozialisten parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako lana eta familia bizitza uztartzeari buruzko lege bat egin dezan, familien eta gure gizartearen errealitatera egokitu.

Iruñean, 2005eko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikan aldaketa batzuk egitea proposatzen da.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikan aldaketa batzuk egitea proposatzen da."

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gainerako parlamentu-taldek izandako solasaldiekin bat, Hizkuntza Politika aztertzeke Ponentziako ondorioen proposamenaren aitzinean talde horiek euren jarrera azal dezaten, honako mozio hau aurkeztu du Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta osorik bozkatzeke, Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikan zenbait aldaketa egitea proposatzeko.

Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikan aldaketak egitea proposatzeko mozioa, Nafarroako Foru Komunitatearen errealitate sozialera eta haren eskaeretara egokitzeko xedearekin.

Euskararen Legea 1986an onetsi zenez gerotik aplikatu den urteetan egiaztatu da lege horrek hizkuntza politika egokia eragin dezakeela eta eragin duela euskara Nafarroan babestu, berreskuratu eta garatzeko, hezkuntza munduan duen presentzia areagotzeko eta erabilera sustatzeko: foru lege horren ondorioz botere publikoek dituzten betebeharrak dira aipatutako guztiak.

Baina denborak orobat erakutsi du hizkuntza politikaren zenbait alderdi berrikusi egin behar direla, agerian geratu delako ez direla eraginkorrak edo gainditu egin direla. Era berean, gizarte-an egoera berriak sortu dira, bai eta eskaerak ere,

eta ez dago horiei aurre egiterik hizkuntza politika errealitate berrietara egokitu ezean.

Horren aurrean, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldearen iritzia da garaia dela egungo hizkuntza politika aldatzeko neurriak bilduko dituzten proposamenak aztertzeke, politika horren zenbait alderdi gure erkidegoko errealitate sozial berrira eta Nafarroako gizarteak arlo honetan eskatzen duenera moldatu beharra dagoelakoa. Euskarari buruzko Foru Legea da Nafarroako hizkuntza politikaren esparrua, eta ez da estatikoa, bai baititu berrikusteko bide batzuk, aldaketa eskatzen duten egoeretara egokitzeko aukera ematen dutenak.

Horregatik guztiagatik, erabaki proposamen hau aurkeztu dugu, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak onets dezan:

Nafarroako Parlamentuak adierazten du Nafarroako Foru Komunitatean hizkuntza politika ezarri eta garatzean Euskarari buruzko Foru Lege indardunean eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunean ageri diren betebeharrak errespetatu eta bete behar direla. Euskarari buruzko Foru Legea da hezkuntzarako eta hizkuntza aukerarako banakakoen eskubideez libreki baliatzeko lege esparru indarduna, eta Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du hari eutsi eta hura funtsezko aldaketarik gabe garatu beharra, zorrozki kontrolatuz eta ebaluatuz beteko dela. Era berean, Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunak, Europar Batasuneko hamaika estatu kidek izenpetua, Espainiakoak barne, aitortzen du Europako hizkuntza historikoak "Europako kultura-aberastasuna eta ohiturak gorde eta garatzeko lagungarri direla" eta demokrazia eta kultura-ugaritasuna oinarri dituen Europa eraikitzeke laguntza garrantzitsua direla." Gutunak eskatzen die estatuei, hala egin ez dutenei, hizkuntza horiek ofizialki onar ditzaten, sustatzeko ekintza positiboak abian jar ditzaten, bereizkeria oro ezaba dezaten eta bizitza publikoan erabilera bultzatzea dezaten.

Nafarroako Parlamentua Euskarari buruzko Foru Legeak funtsezko aldaketarik gabe indarra izaten segitzearen alde dago. Eta haren iritzia da, beraz, egungo Euskarari buruzko Foru Legea mantendu behar dela, hizkuntza politikaren arloan Konstituzioak agindutakoak Nafarroako Foru Komunitateko errealitateari dagokionez aplikatu

eta garatzeko bidea izan dadin, bai eta gure erkidegoko hizkuntza aniztasunerako topagune ere.

Nafarroako Parlamentuak berresten du Nafarroako Foru eraentza birrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoan eta Euskarari buruzko Foru Legean euskararen erabilera eta irakaskuntza legez arautzearen arloan ezarritakoa; bertan ezartzen da “gaztelania Nafarroako hizkuntza ofiziala dela” eta euskara ere bai, “Nafarroako euskal eremuetan”. Berriz ere esan behar da Euskarari buruzko Foru Legeak, 2.1 artikuluan dioela “gaztelania eta euskara Nafarroako hizkuntza berekiak direla eta, horren ondorioz, herritar guztiak dutela jakin eta erabiltzeko eskubidea”. Euskara Nafarroako Foru Komunitateko hizkuntza berekia dela onartzeak berarekin dakar onartzea gure gizartea, berez eta beste erkidego batzuk ez bezala, gizarte elebiduna dela eta botere publikoek legezko betekizun dutela urratsak egitea elebitasunak iraun dezan eta erkidegoak askatasunez, borondatez eta inposiziorik gabe gara dezan.

Ez dago Nafarroako Parlamentuaren asmoen artean euskararen ofizialtasuna onartzea erkidegoko lurralde osoan, ez eta Foru Hobetzea aldatzea ere gai honi dagokionez, ez baitu uste komenigarria eta Nafarroako Foru Komunitateko errealitate soziolinguistikorako egokia denik. Nafarroako Foru Komunitatean elebitasunak dituen berezko ezaugarriak direla eta, komeni da Nafarroan hizkuntza eremuak egotea, euskara erabili eta irakasteko tratamendu desberdinak dituztenak.

Nafarroako Parlamentuak uste du Euskarari buruzko Foru Legeak duela hemezortzi urte baino gehiago Nafarroan zegoen errealitate soziolinguistikoa eta politikora egokitutako irizpideak erabili zituela hizkuntza eremuak osatzen dituzten Nafarroako herriak zerrendatzeko, legearen beraren aplikazioaren ondorioetarako. Zerrenda hori berrikusi behar da, Euskarari buruzko Foru Legearen laguntzaz sortu den errealitatearekin egokitzeko. Hizkuntza errealitatearekin zerikusirik ez duten gertaerek, hala nola hirigintza garapenek, hiri-bilbe jarraitua osatu dute Iruñerrian, Barañain, Berriozar, Burlata, Mutiloa, Noain, Eguesibar, Elortziabar... bezalako herriekin. Herri horiek, hiriburuarekin batera, “Iruñeko konurbazioa” osatzen dute eta antzeko osagai soziologiko eta soziolinguistikoak dituzte. Hori dela eta, bidezkoa da hizkuntza eremuen mugak berrikustea eremu zehatz horretan. Horretarako, hizkuntza egoerari eta etorkizunari buruzko txostena egin behar da alde zehatzetik, baita eremu hori zehaztu eta mugatu ere. Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eremu mistoaren mugak

berrikusi ditzan Iruñerrian, behar diren azterlan eta txostenak egin ondoren.

Nafarroako Parlamentuak eredu nagusien (D eta G) egungo banaketaren balorazio negatiboa egiten du, bi eredu arteko harremanik ez izateak bi mundu paralelo bihurtzea eta ikasleak “desberdinak” izatea dakarrelako; Parlamentuaren ustez errealitate hori aldatu beharra dago gure gizartean integrazioa eta mestizaia lagunduko badugu. Beraz, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du euskara eta euskaraz irakastea ahalbidetuko duten eredu ezarpena sustatzeko konpromisoa bete dezan, foru legearen printzipioekin eta borondatezotasunarekin bat, hizkuntza integrazioa eta bizikidetasuna lagundu eta erraztuko dituzten ekimenak proposatuz eta sostengatuz.

Nafarroako Parlamentuak, uste baitu egungo gobernuak, bere gobernu programaren arabera, legezko baldintzak betetzen dituzten eremu ez-euskalduneko ikastolentzako baimenak eta itunak ezartzeko konpromisoa duela, ikastetxe horiek Nafarroako irakaskuntzako ikastetxe itunduen sarean sartu behar direla gainerako ikastetxeen baldintza berdinetan, eta eremu ez-euskalduneko ikastolentzako egungo finantzazio sistema eta dirulaguntzen araubidea 2005eko abuztuaren 31n amaituko dela, Nafarroako Gobernua premiatzen du konpromiso horiek bete eta amaiera eman diezaien Nafarroako hezkuntza sistemaren okerreko egoera horri, luzeegi iraun duen okerreko egoera horri.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari gogorarazten dio Parlamentuaren konpromisoa euskarak lanbide heziketan izan beharreko presentziak eta beharrezkoa dela neurria hartzea euskarak arrazoizko tokia izan dezan behar adina eskaera dagoen herri edo eskualdetako heziketa zikloetan.

Nafarroako Parlamentuaren iritzia da Nafarroako errealitate soziolinguistikoa dela eta bazterturik dagoela Nafarroako Unibertsitate Publikoan ikasketak bi lerrotan bikoiztea eta berez ez dagoen koofizialtasuna ematea. Unibertsitateko adinera ailegatzean euskaraz behar bezala jakin behar da. Ez dirudi adin horretan aurreko ikasketetako hizkuntza murgilketa mantendu behar denik, baizik eta aurreko etapetan bereganatutakoa aberastuko duten hiztegia eta hitz teknikoak edo berariazkoak gehitu, hizkuntza dela medio gainerako ikasleengandik beti banaturik egon gabe. Unibertsitatearen xede nagusia profesional onak prestatzea da eta ez elebitasuna sustatzea. Horregatik ez gatoz bat Nafarroako Unibertsitate Publikoa unibertsitate elebidun bihurtzeko proposamenarekin, uste

dugulako bertan lehentasuna eman behar zaiola karreraren kualifikazio teknikoari, hizkuntza kualifikazioaren gainetik. Nolanahi ere, Nafarroako Parlamentuak dei egiten die unibertsitateko hizkuntza politikaren arduradunei azter dezaten zein den euskarazko irakasgaien presentzia egokia, euskaraz baliatu behar diren etorkizuneko profesionalen titulazio bakoitzeko hiztegi teknikoaren jabe izan daitezten.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du baliabide ekonomikoak jar ditzan euskara ikasi nahi duten helduei kalitatezko eta behar bezala finantzatutako irakaskuntza bermatzeko. Xedea da biztanleriaren sektore guztietan, helduen artean, kasu, euskara ikasi, ezagutu eta erabiltzen laguntzen jarraitzea, gaztelania eta euskara elkarren ondoan bizitzea sustatu eta hobetzeko bitartekoa izan dadin.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua bultzatzen du langileei hizkuntza prestakuntza egokia emateko politika zehatza garatzeko bere konpromisoa betetzera, halatan posible izan dadin zerbitzuak euskaraz ematea hala nahi duten herritarrei. Horregatik, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du txosten bat presta dezan, herritar euskaldunei arreta euskaraz emateko dauden egiazko beharrak ezagutzeko, lanpostuak eta hizkuntza eskakizunak zehaztu eta administrazio publikoen prozesuak egokitzeko Nafarroako eremuen araberrako errealitate elebidunera, zerbitzu zentralak eta periferikoak bereiziz. Orobat, beharrezko iruditzen zaio administrazioan tresna eraginkorrak izatea euskararen erabilera arrazoizkoa eta egokia izan dadin herritarren eta administrazioaren arteko harremanetan; hartara, Nafarroako Gobernuko administrazio orokorra gai izanen da administrazio espedienteak euskaraz tramitzeko herritarrek hala eskatzen diotenean.

Nafarroako Parlamentuaren ustez beharrezkoa da Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia, Lehendakaritza Departamentuaren mendekoa dena, administrazio publikoen eta hizkuntzaren ezagutza sustatzen eta hedatzen aritzen diren gizarte entitateen arteko elkartzeko eta koordinatze-gune izan dadin berreskuratzea. Gure iritzia da administrazioak ez direla zein bere aldetik aritu behar, korrelazio politikoaren gorabeheren mende, horrek euskararen instrumentalizazio politikoa dakarkeelako.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gizarte ekimeneko programak

finantzatzeko deialdiak egin ditzan, baldin eta euskara eta euskararen erabilera sustatzeko badira, gizartean nahiz bestelako jardueretan, hala nola, kulturean, ikus-entzunezkoetan edo teknologia berrietan. Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako euskarazko kulturaren aldeko ekintzak bultzatu eta sustatzera, bai eta informazioaren gizartean euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko programak gauzatzera ere, gure erkidegoko administrazio publikoetako web orrietako informazioa eta edukiak bi hizkuntzetan ematea barne.

Nafarroako Parlamentuaren ustez errotulaziorako egungo arauak usadiozko eta ohiko izendapenak eta izenak errespetatuz aplikatu behar dira, etimologia kontuan hartuz eta zentzuz jokatzuz, bereziki eremu mistoan eta euskaldunetan; erkidegoko sinbologia ofizialaren arloan, eremu horietan elebitasunak arau izan beharko luke eta gaztelania hutsaren erabilerak, berriz, salbuespen.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du euskarazko komunikabideak, publikoak nahiz pribatuak, izan daitezten sustatzera. Komunikabideentzako emakida, dirulaguntza eta laguntzetan aurreikusi behar da euskara hutsezko edo nagusiki euskaraz diren komunikabideak izateko beharra, eta adjudikazioa helburuaren berezitasunetik abiatuz egin beharko da. Gobernuak, hortaz, hizkuntza aldetiko premia horri eman behar dio lehentasuna eremu horietako adjudikazioetan, eta bereziki Iruñerrian. Beraz, Nafarroako Parlamentuak uste du Nafarroako toki telebistaren mapa berrian sarturik egon behar direla Baztanen eta Sakanan lehendik ere euskarazko emisioa betetzen zuten telebistak, eta lurralde osoan eta eremu mistoan presentzia duten kate guztiek gehitu beharko lukete euskarazko programazioa eremu euskaldunetan eta mistoan, batez ere haur eta gazteentzako saioekin ikusle mota horrentzat erakargarriak diren gaietan. Ildo berean, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du euskarazko prentsa idatziari eta gaztelaniazkoari ere –euskaraz informa dezaten– dirulaguntzak emateko zuzkidura ekonomikoak hobe ditzan.

Nafarroako Parlamentuak uste du aurreko proposamenak gauzatzeko, Nafarroako hurrengo aurrekontu orokorretan horiek betetzea ziurtatzeko adinako funts aurreikusi beharko direla.

Iruñean, 2005eko apirilaren 28an

Eleduna: Fernando Puras Gil

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mendekotasunaren arloko prebentzio eta laguntzarako beste plan bat igor dezan.

ARALAR PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Aralar parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Nafarroako Gobernua premiatzen da mendekotasunaren arloko prebentzio eta laguntzarako beste plan bat igor dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa tramitera onartzea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahal dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

MOZIOAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko eledun Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioak

Ikerketa guztien arabera, populazioaren zahartzea atzera bueltarik ez duen prozesua da lehen munduko herrialde guztietan, baita Nafarroako Foru Komunitatean ere.

Eginiko prospekzio soziologikoetan aurreikusitenez, 2050. urterako 80 urtetik gorako 4 milioi pertsona izanen dira Espainiako estatuan. Horrek ekarriko du iraupen luzeko mendekotasuna duen pertsona gero eta gehiago izatea, eta pertsona horiei laguntza eman beharko zaie, dituzten behar berriak kontuan hartuta.

Horri gehitu behar zaio mendekotasuna duten pertsonen gainerako taldeen egoera; izan ere, talde bakoitzak berariazko arazo eta beharrak ditu.

Beharrezkoa da "mendekotasunaren medikalizaziotik" haratago doazen neurriak hartzea, eta horretarako, errealitatea bere osotasunean ezagutu behar da, beharrei antzeman, hierarkizatu eta lehentasunak ezarri, helburuak finkatu eta, horretaz gain, berariazko aurrekontu zuzkidurak ezarri, mendekotasuna duten pertsonen ematen zaien laguntza zerbitzua unibertsala izan dadin, inplikaturiko administrazio guztien parte-hartzearekin.

Bere garaian Nafarroako plan gerontologikoa onetsi zen, lau urtetarako, baina duela urte batzuk amaitu zen eta Nafarroako arartekoak duela gutxi legebiltzar honetan aurkeztutako txostenean nabarmentzen da arlo horretako araudiaren heterogeneotasuna eta sakabanatzea, eta hirugarrenik, mendekotasunaren kontzeptua ez dela adineko pertsonetara mugatu behar. Araudiaren sakabanatze eta heterogeneotasunak, plangintza faltarekin batera, ekarri dute mendekotasuna duten pertsonen laguntza emateari buruzko gizarte ongizateko politikek unean uneko arazoan atzetik doazen ekimenak garatzea, baita irizpideak aplikatzerakoan gehiegizko zuhurtzia erabiltzea ere.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean plangintza gerontologikoa jasotzen duen mendekotasunaren arloko prebentzio eta laguntzarako beste plan bat igor dezan Nafarroako Parlamentura.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du oinarritzko irizpideak finkatu eta gaur egun sakabanatuta dagoen araudia bateratuko dituen mendekotasunaren arloko prebentzio eta laguntza arautzeko oinarrien lege proposamena igor dezan Nafarroako Parlamentura.

Iruñean, 2005eko apirilaren 28an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

F saila:
GALDERAK

Galdera, Ezkaba mendiaren erabilera eta babes arautzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI TXENTXO JIMÉNEZ HERVÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea Ezkaba mendiaren erabilera eta babes arautzeari buruz foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernu Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilari José Andrés Burguete jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zioak

2004ko ekainaren 3an legebiltzar honetan eginiko Osoko Bilkuran parlamentu-talde honek aurkezturiko mozio bat onetsi zen. Mozioaren testua ondokoa zen:

“1.- Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentua premiatzea lan mahai bat era dezan, departamentuak berak, Ezkaba mendiak (EN-23) ukitutako toki entitateek eta kontserbazioaren aldeko elkarteetako ordezkariak osaturikoa.

2.- Eztabaidarako mahai horrek, aurrekari guztiak eta Ezkaba mendiari (EN-23) buruz eta hura erabilera eta babes eremu bihurtzeko eginiko proposamenak eta proiektuak bilduta, eztabaidari ekin

nen dio, eta eztabaida horren ondorioz Ezkaba mendiaren (EN-23) eremuaren erabilerari eta babesari buruzko arau-proposamen bat egingen da.

3.- Nafarroako Gobernuak, ukituriko toki entitateekin batera, babestu beharreko arloan gerta daitezkeen eraikin eta ondasun partikularren afekzio guztiak kudeatuko ditu, halakorik egonez gero.

4.- Zortzi hileko epean, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak Ezkaba mendiaren (EN-23) eremuaren erabilerari eta babesari buruzko ondorioak eta arau-proposamen bat aurkeztu beharko du legebiltzar honetan.

Erabaki hori 2004ko ekainaren 10eko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eman zen argitara.

Halatan, 10 hilabete baino gehiago iragan dira erabaki hori onetsi eta argitaratu zenetik eta Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari 8 hilabeteko epea eman zitzaionez erantzuna Nafarroako Parlamentura igor zezan eta ikusirik orain arte legebiltzar honetan ez dela halakorik jaso, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Zenbat bilera egin edo sustatu ditu departamentu horrek Ezkaba mendiarekin muga egiten duten toki entitateekin legebiltzar honek onetsitako eskaera betetzeko? Bilera horietan, zer jarrera azaldu dute bertaratutako entitateek eta zer adostu da Ezkaba mendia babes eta aisiako gune bihurtzei buruz? Zer epetan beteko da, kontseilariaren ustez, Nafarroako Parlamentuan Ezkaba mendiari buruzko proposamena aurkezteko eskaera?

Iruñean, 2005eko apirilaren 26an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervás

Galdera, euskaraz murgiltzeko eredia duten ikastetxeetan, ez-egonkortasunak, masifikazioak eta plangintza faltak matrikulazioan eragina izan duten jakitekoa.

FORU PARLAMENTARI TXENTXO JIMÉNEZ HERVÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea euskaraz murgiltzeko eredia duten ikastetxeetan, ez-egonkortasunak, masifikazioak eta plangintza faltak matrikulazioan eragina izan duten jakiteko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egindako galdera. Galdegileak eskatu du Hezkuntza Batzordean ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aur-

keztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilari Luis Campoy Zueco jaunak ahoz erantzun diezaion:

Zioak

Euskaraz murgiltzeko eredia duten Sanduzelai, Antsoain eta Arrotxapea auzoetako ikastetxe publikoak kolapsatuta daude. Horietako bik ikastetxe berria behar dute. Hala ere, D ereduko matrikulazioak gainezka egin du.

Galdera:

Hezkuntza kontseilariaren ustez, euskaraz murgiltzeko eredia duten ikastetxeetan, ez-egonkortasunak, masifikazioak eta plangintza faltak izan al dute eraginik matrikulazioan? Ikastetxeen egoera egokia izan balitz matrikulazioa handitu egingen zela uste al duzu?

Iruñean, 2005eko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko itxaron zerrendei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak egindako galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko itxaron zerrendei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osasun Departamentuak idatziz erantzuteko:

Duela gutxi Tuterako Reina Sofia Ospitaleko zuzendari berria izendatu dute. Hedabideetarako eginiko adierazpen publiko batzuetan adierazi zuenez, ospitaleko zuzendari gisa duen lehentasunetako bat itxaron zerrendak murriztea da.

Hori izanik Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak duen arazo nagusienetako bat, garrantzitsua dirudi itxaron zerrendak murriztearen alde egitea.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dut:

1.- Zer itxaron zerrendak daude gaur egun Tuterako Reina Sofia Ospitaleko espezialitateetan?

2.- Zer giza baliabidez hornituko da ospitalea itxaron zerrendak murriztu ahal izateko?

3.- Zer antolamenduzko baliabidez hornituko da ospitalea itxaron zerrendak murriztu ahal izateko?

4.- Bestelako zer neurri abiaraziko ditu Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak itxaron zerrendak murriztu ahal izateko?

5.- Gaixoak klinika pribatuetara edota eskualdeko ospitalea ez den sareko beste ospitale publiko batzuetara bidaltzeko asmorik ba al du?

Iruñean, 2005eko apirilaren 25ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, Mendabian Errioxako jatorrizko deitura kalifikatuko lur-eremuko ardandegi bat paratzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIREN EGAÑA DESKARGA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miren Egaña Deskarga andreak egindako galdera, Mendabian Errioxako jatorrizko deitura kalifikatuko lur-eremuko ardandegi bat paratzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindut.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko Miren Egaña Descarga parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Egia al da Nafarroako Gobernuak Errioxako jatorrizko deitura kalifikatuko lur-eremuko ardandegi bat Mendabian paratzeko aukera eskaini diola Griñongo markesa den Carlos Falcó ardogileari?

Hala bada, zehaztu eskaintzaren xehetasunak eta erantsi horri buruzko dokumentazioa.

Iruñean, 2005eko apirilaren 25ean

Foru parlamentaria: Miren Egaña Descarga

Galdera, langile autonomoaren estatutuari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELMA SAIZ DELGADO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak egindako galdera, langile autonomoaren estatutuari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elma Saiz Delgado, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Industria kontseilariari, idatziz erantzun dezan:

“Langile autonomoen estatutuaren” proposamenaren negoziazioa aurreratu samar dago. Estatutu hori lege marko bat da eta, onetsiz gero, legegintzaldi honetako gizarte erreforma garrantzitsuena izanen litzateke.

Sektorearen ikuspegi “aurrerakoi eta iraultzailea” duen proposamen hori bidali dute Gobernuak gaia aztertu eta beharrezkoak diren txostenak emateko ditzan izendatutako adituen batzordera. Ondoren, langile autonomoen estatutuaren zirriborroa Gorteetan eztabaidatuko da eta 2006. urtean indarrean sar liteke.

Aipatu estatutua onesteak ekarriko luke jardura bat modu zuzenean egiten duten pertsona guztien figura definitzea eta dagozkien eskubide eta betebeharrak aitortzea; hain zuzen, langileek luza-roan eskatu dutena.

Estatutuak ahalbidetuko luke norbere kontura aritzen diren langileek, besteak beste, sindikatu, greba deitu, langabeziaren ondoriozko babesa jaso, familiakoak kontratatu edota erretiro aurreratu hartu ahal izatea.

Informazio horren aurrean hauxe da nire galdera:

Zer egin asmo du Nafarroako Gobernuak langile autonomoen estatutua onartzeak ekar ditzakeen aldaketen ondorioz?

Iruñean, 2005eko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: Elma Saiz Delgado

Galdera, “ADAPNA, Adaptabilidad de Navarra” izeneko proiektuaren helburuei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELMA SAIZ DELGADO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elma Saiz Delgado andreak egindako galdera, “ADAPNA, Adaptabilidad de Navarra” izeneko proiektuaren helburuei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elma Saiz Delgado, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Industria kontseilariari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak iragarri duen ADAPNA proiektuarekin lotuta, hauxe jakin nahi dut:

- Zein dira “ADAPNA, Adaptabilidad de Navarra” proiektuaren helburuak?

- Zenbat aurreikusi da iraunen duela?
- Nori zuzendua dago?
- Zein da horretarako aurrekontu kontusaila?
- Zer emaitza espero dira? Nola ezagutaraziko zaie hartzaileei?

- Ba al da proiektu horren beharra eta eraginkortasuna erakusten duen azterlanik? Hala baldin bada, horren kopia jaso nahi dut.

Iruñean, 2005eko apirilaren 21ean

Foru parlamentaria: Elma Saiz Delgado

Galdera, TECAL 40 enpresaren bideragarritasun planari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELMA SÁIZ DELGADO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elma Sáiz Delgado andreak egindako galdera, TECAL 40 enpresaren bideragarritasun planari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Elma Saizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Aurtengo martxoan Ekonomia Batzordean eginitako agerraldian TECAL 40 enpresaren bideragarritasun plana izan zenuen hizpide.

Hala ere, gaur egun ikusten dugunez, enpresaren egoera kritikoa da eta langileena, berriz, oso zaila.

Horrenbestez, eta gai hau garrantzitsua denez, parlamentari honek galdera hauei idatziz erantzutea nahi du:

a) Zertan dira horretarako eskatutako abalak?

b) Zein da, gaur egun, Nafarroako Gobernuaren asebetetze maila, aurkeztutako bideragarritasun planean ezarritakoaren jarraipenari dagokionez?

c) Zein izan da Nafarroako Gobernuak izendatutako kudeatzaile Cura jaunaren eginkizuna?

Iruñean, 2005eko apirilaren 25ean

Foru parlamentaria: Elma Saiz Delgado

Galdera, udalei turismoa sustatzeko emandako dirulaguntzei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, udalei turismoa sustatzeko emandako dirulaguntzei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Antza denez, Nafarroako Gobernuako Turismo Departamentua turismoa sustatzeko hainbat proiektu prestatzen ari da, Nafarroako Foru Komunitateak arlo horretan duen gabezia egoera hobetzeko helburuarekin.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dut:

– Zenbat udalek jasotzen dute Kultura eta Turismo Departamentuaren dirulaguntza turismoa sustatzeko?

– Zein dira laguntza hori jasotzen duten udalak?

– Zenbat diru jasotzen du udal bakoitzak?

– Zer programaren kontura ordaintzen dira kopuru horiek?

Iruñean, 2005eko apirilaren 26an

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

Galdera, “Urbasako Jauregia” delakoaren balizko eraispinari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak egindako galdera, “Urbasako Jauregia” delakoaren balizko eraispinari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeak, legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzuteko:

Parlamentu-talde honek jakin duenez, Urbasako Lizarragako portuan dagoen “Zunbeltz Benta” delakoa eraitsi dute.

Halaber, badira zantzuak pentsatzeko gauza bera egin behar dutela “Urbasako Jauregia” delakoarekin.

Bi higiezin horiek Nafarroako Gobernuaren jabegokoak dira. Hori dela eta, hauxe jakin nahi dugu:

– Egia al da azaldutakoa? “Urbasako Jauregia” delakoa eraitsi behar al dute?

– Hala bada, zeintzuk dira ekintza horien arrazoiak? zer asmo ditu Nafarroako Gobernuak etorkizunerako higiezin horiei dagokienez?

Iruñean, 2005eko apirilaren 27an

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Galdera, Liburutegi Nagusiaren zerbitzua Sedena enpresari adjudikatzeari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MIREN EGAÑA DESKARGA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Miren Egaña Deskarga andreak egindako galdera, Liburutegi Nagusiaren zerbitzua Sedena enpresari adjudikatzeari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Aralar parlamentu-taldeko Miren Egaña Descarga foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoari jarraikiz, honako galdera hauek egiten dizkio Kultura eta Turismo kontseilariari, hark idatziz erantzun ditzan:

Nafarroako Liburutegi Nagusiko zer zerbitzu adjudikatu dio, zehazki, Kultura eta Turismo Departamentuak Sedena enpresari?

Kultura eta Turismo Departamentuak zergatik ez du zerrendetara jo liburutegiko laguntzaile gehiago kontratatzeko?

Zenbatean egin dio Kultura eta Turismo Departamentuak zerbitzuaren edo zerbitzuen adjudikazioa Sedena enpresari? Igor ezazu adjudikazioari buruzko administrazio egintzen kopia.

Sedena enpresaren menpeko zenbat langile hasi da lanean Liburutegi Nagusian? Zer lan harreman mota dute langile horiek enpresarekin? Zenbat ordu eginen dute lan astean? Zer lansari (gordina eta garbia) jasoko dute langile horiek? Igor ezazu kontratu moten kopia.

2005erako gastuen aurrekontuko zer kontusailen kargura eginen da adjudikazio hori?

Iruñean, 2005eko apirilaren 28an

Foru parlamentaria: Miren Egaña Descarga

Galdera, 2002ko ekainaren 5eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako deialdian azterketak gainditu zituzten Osasunbideko administrari-laguntzaileek dituzten arazoei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egindako galdera, 2002ko ekainaren 5eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako deialdian azterketak gainditu zituzten Osasunbideko administrari-laguntzaileek dituzten arazoei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Elena Torres Mirandak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2002ko ekainaren 5eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Osasunbideko administrari laguntzaile lanpostuetarako oposizio-lehiaketaren deialdian lanpostua lortu eta 2005eko ekainaren 1ean haren jabetza hartuko duten

administrari laguntzaileek daukaten arazoaren berri izan dugu.

Bestalde, jakina da deialdia zenbat arazorekin eta zein astiro tramitatu den; izan ere, hiru urte oso behar izan dira horretarako, 2002ko ekainetik hasita 2005eko ekainera arte, eta horren ondorioz, oposizio-lehiaketa gainditu dutenak izan dira kalte-tu nagusiak.

Atzerapen horren ondorioz, pertsona horiek ezin izanen dute parte hartu maiatzean Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den administrari laguntzaile izateko lanpostu hutsak betetzeko lekualdatze lehiaketaren deialdian; izan ere, deialdi horretan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea pertsona horiek beren lanpostuen jabetza hartu baino lehen amaituko da.

Pertsona horiek Gobernuari eskatu diote administrari laguntzaileen lekualdatze lehiaketaren deialdia argitaratzeko aurrez ikusitako data alda dezan, bertan parte hartu ahal izateko.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

Zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak egoera baztertzaile hau saihesteko?

Ba al du asmorik Nafarroako Gobernuak aipatutako administrari laguntzaileen eskaria betetzeko? Ezezkoan, zehaztu arrazoiak.

Iruñean, 2005eko apirilaren 28an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Agoizko Udalari emandako dirulaguntzei buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, Agoizko Udalari emandako dirulaguntzei buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkertasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Parlamentari honek jakin nahi du zer dirulaguntza jaso dituen Agoizko Udalak Nafarroako Gobernuek eta zer kontzepturengatik azken zazpi urteotan.

Iruñean, 2005eko apirilaren 28an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, “Frantzisko Xabierkoaren arrasto unibertsala” izeneko erakusketari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI MAIORGA RAMIREZ ERRO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Maiorga Ramirez Erro jaunak egindako galdera, “Frantzisko Xabierkoaren arrasto unibertsala” izeneko erakusketari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramirez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako gal-

dera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Duela gutxi Toki Administrazioiko eta Kultura eta Turismo kontseilariak, besteak beste, inauguratu duten “Frantzisko Xabierkoaren arrasto unibertsala” izeneko erakusketari dagokionez, hauxe jakin nahi dut:

– Lehena. Euskararen erabilera eta berari buruzko erreferentziak erakusketa horretan.

– Bigarrena. Beste hizkuntza batzuen erabilera.

– Hirugarrena. Erabilitako hizkuntza irizpideak. Irizpide horiek erabiltzeko arazoak.

Iruñean, 2005eko apirilaren 28an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramirez Erro

Galdera, landetxeen sareari buruzkoa.

FORU PARLAMENTARI HELENA BERRUEZO VALENCIA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen tramitera onartzea foru parlamentari Helena Berruezo Valencia andreak egindako galdera, landetxeen sareari buruzkoa. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Helena Berruezo Valenciak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Dirudienez, Nafarroako Gobernuak hasi da Nafarroako Foru Komunitateko turismoaren egoera zaila dela ikusten eta onartzen.

Landetxeek arrakasta handia izan dute abian jarri zirenetik eta horren froga da urterik urte landetxe kopurua handituz doala. Bisitatzen gaituzten turistek asko estimatu dituzte, baina Nafarroako herritarrak dira gehien erabiltzen dituztenak. Hori dela eta, gure ustez beharrezkoa da Turismo Departamentuak beharrezkoak diren baliabide guztiak jartzea landetxeen sarearen eskura, bere burua Espainian eta European ezagutaraz dezan.

Hori dela eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

• Landetxeen sarean erreserbak egiteko zentrala erabilgarri al dago?

• Hala bada, zenbat pertsonak egiten du lan bertan?

• Zenbat erreserba egin dira zentrolean 2003. eta 2004. urteetan eta iragan diren 2005. urteko hilabeteetan?

Iruñean, 2005eko apirilaren 28an.

Foru parlamentaria: Helena Berruezo Valencia

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikari lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzekoa.

Lekualdatze lehiaketa hutsik gelditu da

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2005eko maiatzaren 2an egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikari lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdiko hautapen probak bukatuta, inork ez du gainditu eskaturiko puntuazioa. Deialdi hori 2005eko urtarrilaren 31ko 13. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori dela eta, aipatu deialdiko 7. oinarriak xedatutakoarekin bat, ERABAKI DA:

1. Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren Bulegoaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikari lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko deialdia hutsik gelditu dela adieraztea (deialdia 2005eko urtarrilaren 31ko 13. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara) inork ez baitu eskaturiko puntuazioa gainditu.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 4an

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Proposamena, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 76. artikulua aldatzekoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 76. artikulua aldatzeko proposamenari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proposamen hori 2005eko apirilaren 11ko 31. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2005eko maiatzaren 5ean

Lehendakaria: Rafael Gurrea Induráin

1. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA -NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Proposamenaren artikulua bakarrik aldatzeko zuzenketa; hona testu berria:

«Artikulu bakarra. Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 76. artikulua aldatuko da. Hona testu berria:

“76. artikulua. Ikerketa batzordeak irekiak izanen dira komunikabideentzat. Ikerketa batzordeak berak isilpeko bilkurak egitea erabaki dezake, agertu behar dutenek hala eskatu dutelako edo batzordeko kideek beraiek hala proposatu dutelako, baldin eta beharrezkoa bada batzordearen helburuak bermatzeko edo pertsonen ohorerako eskubidea nahiz beste ondasun juridiko batzuk babesteko. Mahaiak, ikerketa batzordeak proposatuta edo bere ekimenez, ikerketa batzorde batek eginiko proposamenak, irizpenak, txostenak edo ondorioak eztabaidatuko diren Osoko Bilkura isilpekoa izanen dela erabaki dezake.»

Zioak: Testua hobetzea eta arau orokorra bilkuren publikotasuna izan dadila, non eta batzordeak berak ez duen aurkako erabakia hartzen. Eragin-korragoa da, gure ustez, erabakia ikerketa batzordeak berak hartzea eta ez Mahaiak eta Eledunen Batzarrak, batzordearen funtzionamendua zaildu eta atzeratu egiten bailuke.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 42,35 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,10 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,27 »	